



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ahalordeak: DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

Saioko idazkaria: FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

5. ERABAKIA: IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIEN BILTZARREKO BAZKIDE IZATEA

(9.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio herria Ipar Euskal Herriko herrien Biltzarreko bazkide izatea 2025 urtean.

Honakoak dira Biltzarraren xedeak:

- Herrien ahotsa izatea
- Ipar Euskal Herriko problematika amankomunei buruzko gogoetak elikatzea
- Proposamenak egitea
- Gure patu komunitatearen bilakaera instituzionala segitzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, herria Ipar Euskal Herriko herrien Biltzareko bazkide izatea 2025ean,

Jean-Marc Oçafraïn jauna **IZENDATU DU** Ortzaize herriaren ordezkari gisa,

- **ONARTU DU**, 43,80 €ko bazkide saria ordaintzea 2025 urterako,

BAIEZTATU DU, gastu horrentzako kredituak badirela 2025eko aurrekontuan.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 8
Adierazi diren bozkak: 10 (9 presente eta ahalorde 1)
ALDE: 10
KONTRA: 0
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an
Auzapeza:
Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.